

II

Osoko bilkura

Bilbon, egoitzan

2024ko otsailaren 23an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Garikano, Asun
Iñigo, Andres
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Roberto
González de Viñaspre, Jose Irazu
«B. Atxaga», Beñat Oihartzabal, Patxi
Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Roberto González de Viñasprek
ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu
«B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari;
Beñat Oihartzabalek ahala Miren
Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala
Andres Urrutiari eta Mikel Zalbidek
ahala Andres Urrutiari. *Andres Urrutia
euskaltzainburuak euskaltzainak agurtu
eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela
egiaztatu ondoren, 2024ko otsaileko osoko
bilkurari hasiera eman zaio.*

*E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak
azaldu ditu.*

1. Osoko Bilkuraren (2024-01-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Idatziz ez da oharrrik jaso. A. Urrutiak bestelako oharrrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ageriko Bilkuraren (2024-01-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Behin-behineko batzar-agirian hurreratu direnen artean, Patri Urkizu euskaltzain urgazlea dago. Bilkurara joango zela baieztatu bazuen ere, azkenean, osasun- kontuak zirela eta, ez zen bilkuran egon. Hori zuzendu ostean, 2024ko urtarrilaren 26ko ageriko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduenaren oharrak (XLIX). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Urtarrileko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Alberdik, A. Garikanok, A. Mujikak eta M.L. Oñederrak egindako oharrak aurkeztu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. Osoko Bilkurak erabakitzeko utzitako bi forma eztabaidatu eta erabaki dira: *HARTU* sarrerako 23. adierako adibide batean zetorren *etxeño* txikigarria bere horretan uztea onartu da, eta *JAUN* sarrerako 4. adieran A. Garikanok eskatutako definizio-aldaketa onartu da. Beste ohar guztiak bere horretan onartu dira. Beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduenaren oharrak (L). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Martxoaren 11 (astelehena) arteko epea finkatu da oharrak egiteko.

5. Exonomastika: 32. arauan («Espainiako erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak») herritar-izenak sartzea: *giputz*

Azaroaren 25eko bilkuran, Espainiako eta Frantziako herritar-izenak onartu ziren (32. arauan eta 36. arauan txertatzeko), eta erabaki gabe utzi zen

gipuzkoar/giputz kasua, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*rako erabakiko zenaren mende. M. Urkiak adierazi zuen, gerora, Batzorde Ahaldunduari bidalitako zerrendan ageri dela lehendik *giputz* forma (*Euskaltzaindiaren Hiztegi*aren Lantaldeak egin zuen oharra gehitzeko eskaera), inork ez ziola oharrik egin eta, horrenbestez, bere horretan onartu dela prozeduraren arabera (3. adieran azalpen-ohar bat gehituta). Honela:

giputz

1 iz./adj. **Gipuzkeraz mintzatzen dena.** *Bizkaieraren berririk ez duen giputz bat.*

2 adj. **Gipuzkerazkoa.** *Giputz hizkera. Giputz aditza. Haren euskararen muina giputza dugu, giputz baino giputzagoa batzuetan.*

3 iz./adj. **Gipuzkoarra.** (Batez ere, gipuzkoar ez direnek erabiltzen duten izendatzeko modua da). *Ikusiko banu bizkaitarretan giputzetan nekusan euskararen zaletasuna.*

Bestalde, J.B. Coyosek ohar bat bidali zuen adierazteko *nafar* formaz gain beste bat badela ekialdean/iparraldean erabilia dena: *nafartar*. Eta *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an jasota dagoela eta, horrenbestez, uste zuela forma hori emendatu behar zela.

Euskaltzaindiaren *Hiztegi*aren Batzorde Ahaldunduaren oharra eta J.B. Coyosen datuak eta eskaera ikusirik, proposatu da Espainiako herritarren izenen zerrendan bi oinohar sartzea *nafartar* eta *giputz* izenei tokia egiteko. Honela:

gipuzkoar*

¹ Halaber da egokia **giputz** aldaera ere. Ohar honekin jasotzen du *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ak: «Batez ere gipuzkoar ez direnek erabiltzen duten izendatzeko modua da».

nafar*

¹ Halaber da egokia **nafartar** aldaera ere. *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ak jasotzen du, eta hala erabiltzen da Euskal Herriko ipar-ekialdean gehienbat.

Hala onartu da. Beraz, izen horiek, oin-ohar horiek sartuta, eta gainerako herritar-izenak (Getariako bilkuran onartuak 2023ko azaroan) txertatuko dira 32. arauan, eta argitaratuko da.

Euskaltzaindiaren Hiztegirako GIPUTZ sarrerako 3. adieran ageri den adibidea dela eta («Ikusiko banu bizkaitarretan giputzetan nekusan euskararen zaletasuna»), P. Uribarrenek adierazi du bizkaitarrentzat gutxiesgarri gerta daitekeela gaur egun (Mogelen adibidea da), eta beste adibide bat jartzea proposatu du.

6. EBE Batzordea. Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) egitasmoa: Letra larri eta xeheei buruzko laugarren txostenaren lehen partea aurkeztea

A. Mujikak egin du txostenaren aurkezpena. Adierazi du, lehenik, letra larri eta xeheen ataleko laugarren txostena korapilatsuena dela, EBE Batzordeak lau bilera egin dituela txostena eztabaidatzeko eta oraindik bosgarren bat beharko duela amaitzeko. Beraz, txostena ez dago oraindik Osoko Bilkurari osorik aurkezteko moduan, baina, handia eta mamitsua denez, bi zatitan aurkeztea erabaki duela EBE Batzordeak.

Laugarren txostenean, leku-izen eta pertsona-izen ez diren gainerako kasu guztiak sartzen dira. Lehen atala erakunde-izenei dagokie, eta, haren barnean, erakundeen izendapen laburtuak eta bigarren izendapenak gertatzen dira bereziki arazotsu erabakitzeko, joerak ez daudelako bateratuta, ez gaur egungo euskararen praktikan, ezta nazioartean ere. Aztertu da, batetik, gaztelaniaren, frantsesaren eta katalanaren ortotipografia, eta, bestetik, EAEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko itzultzaileei eta Euskarabideko itzultzaileei iritzia eskatu zaie, eta itzultzaile askoren iritzia jaso dira (txostenaren eranskinean daude guztiak). Hori guztia kontuan hartuta egin dira txostenean ageri diren proposamenak.

Beste sail korapilatsu bat da *armada*, *administrazio*, *eliza*, *polizia*, *estatu* eta *parlamentu* hitzek osatua. Hor ere azterketa sakona egin da, eta, puntu bateraino proposamen itxia egin bada ere, beste batzuetan ez zaio iruditu Batzordeari bide bakarra proposatzeko modua zegoenik eta, horregatik, bi aukera utzi ditu, neurri batean estilo-kontua ere badela kontuan harturik.

Eta bada hirugarren multzo korapilatsu bat ere: erakundeen barneko organo eta atalen izenetan nola jokatu. Euskaltzaindiak *batzorde* letra xehez (Gramatika batzordea) baina *sail* letra larriz (Jagon Saila) erabiltzen du, eta *Zuzendaritza* letra larriz hasita baina zerbitzua (Onomastika zerbitzua) letra xehez. Arlo horretan, organo guztiekin berdin jokatzeko eta letra larriz hasita idaztea proposatu du Batzordeak.

Martxoaren 25 (astelehena) arteko epea jarri da oharrak egiteko.

7. Euskaltzaindiaren Hiztegia eta Orotariko Euskal Hiztegia. Azken argitalpen elektronikoetan ageri diren berrikuntzen azalpena

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren azken argitalpen elektronikoan ageri diren berrikuntzak azaldu ditu M. Urkia hiztegiaren arduradunak. Gogorarazi duenez, azken sei hilabeteotan, 843 forma berri jaso ditu Euskaltzaindiak bere hiztegian, hain zuzen ere, 73 sarrera, 389 azpisarrera eta 381 ohiko lexia. Era berean, 2.376 forma moldatu edo findu ditu: 2.194 sarrera eta 182 azpisarrera. Guztira 49.471 forma ditu orain hiztegiak, 66.523 adiera eta 108.630 adibide. Forma berriak landu dira, baina bestelako lanak ere garrantzia handia du. Izan ere, forma berriak sartzea bezain garrantzitsua da lehendik dagoena txukuntzea, eguneratzea, adiera batzuk egungo erabileren arabera berrantolatzea. Zentzu horretan, M. Urkiak nabarmendu nahi izan du beste atal askotan egiten den lana, esaterako, formak aldatzerakoan, adierak berrikustean edo bestelako kontu gehigarriak gehituzerakoan. Kasurako, oraingo eguneratzean 1.916 sarrera eta adibide moldatu edo ukitu dira. Esaterako, adibiderik gabe zeuden adiera batzuetan gehitu dira; egungo gizartearen ikuspegitik zaharkituak, desegokiak edo iraingarriak izan zitezkeenak ere aldatu dira, batez ere, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari erreparatuta. Horrez gain, *Euskara Batuaren Ortotipografiaren* (EBO) arau berrien arabera berrikusi eta egokitu da hiztegia; eta, ohi bezala, adierak berrikusi, osatu eta findu dira, bai eta euskalki- zein erregistro-markak ere; eta, nola ez, jakintza-arloa.

Hala berean, beste berrikuntza deigarri bat aipatu nahi izan du: lehenengoz, 381 ohiko lexia jaso dira hiztegian. Ohiko lexia figura berria da, forma konplexua, azpisarrerak bezala, baina oso gardenak da eta ez du definizio-beharrik ere. Beraz, informazioa eta adibideak besterik ez daude, gehienetan definizioa bera tautologikoa delako. Baina hitzen konbinazioak zuzen erabiltzeko argigarriak dira forma hauek (adibidez: SARIA BANATU / EMAN / ESKURATU / IRABAZI / JASO / LORTU; SUA AMATATU / ITZALI / PIZTU). Azalpena behar dutenak edo adiera bat baino gehiago dituztenak azpisarrera izango dira, orain arte bezala (adibidez: SU EMAN, SASIARI SU EMAN, SU HARTU...). Aurrerantzean ohiko lexiaren zerrenda hau osatzen jarraituko dutela aurreratu du M. Urkiak. Era berean, azaldu duenez, beste iturri batzuk kontsultatzeko aukera eskaintzen du orain hiztegiak (*Orotariko Euskal Hiztegia*, XX. mendeko *Corpusa*, *Lexikoaren Behatokia*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* –EHHA–). Bada, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE) ere gehitu da eta erabiltzailea zuzenean joan daiteke hiztegitik forma horren etimologia begiratzera, baldin eta EHHEn jasota badago. Azkenik, esaera zaharrak aurreko eguneratzean

jaso ziren, baina orain dagokien sarrera guztietara lotura egin dela ohartarazi du M. Urkiak. Atal horretan, guztira, 518 esaera zahar bildu dira.

Orotariko Euskal Hiztegiaren azken argitalpen elektronikoan jaso diren hobekuntzen berri eman du A. Sagarna egitasmoaren zuzendariak. Azaldu duenez, *Orotariko Euskal Hiztegiak* euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia eta 2005ean hamaseigarrena eta azkena. Handik hona, Euskaltzaindia ahalegin handia egiten ari da hiztegi horren bertsio elektronikoa gero eta aberatsagoa izan dadin edukiz eta bilaketa-aukeretan. Gaur egun, 146.857 sarrera eta 58.005 azpisarrera ditu *Orotariko Euskal Hiztegiak* eta kopuru hori handituz doa egituratze-lanak aurrera egin ahala. Horiek horrela, 13. argitaraldi honetan 77 sarrera berri, 50 azpisarrera berri eta TEI (Text Encoding Initiative) testu-kodeketaren arabera egituratutako 46.936 adibide berri agertzen dira.

Horrez gainera, edukiari dagokionez, *Testamentu berriaren* J. Haranederren itzulpena (1740 ingurukoa) osorik arakatu eta bertan agertzen diren hitzen adibideak sartu dira OEHN; gainera, Georges Lacomberen dokumentu-bildumaren kopia digitalaz baliaturik, OEHN lehendik zeharbidez edo bigarren eskutik jasotako datu batzuk zuzenean egiaztatu ahal izan dira, baita gai berriak sartu ere. Aurkezpenarekin amaitzeko, A. Sagarnak bilaketak eta kontsultak egin ahal izateko egin diren hobekuntzak eta eskaintzen diren aukerak azaldu ditu.

Urtarrilean, webgunean, eguneraturiko bi egitasmoek izan dituzten berrikuntzak aurkeztu ostean, euskaltzainek emaniko argibideak eskertu eta eginiko aurrerapenak txalotu dituzte.

8. Esku artekoak

8.1 Gaur banatuko diren liburuak

- *Lizardi. Bihotz-begietan eta gainerako olerkiak (euskara batura hurbilduak)*. Paratzailea: Karlos Otegi Lakuntza. Euskaltzainak bilduma, 41.
- *Margarita, Nafarroako erregina (1492-1549)*. Paratzailea: Ixabel Etxeberria. Euskaltzainak bilduma, 42.
- *Bonifacio Echegaray, promotor y defensor del euskera. Artículos 1927-1933*. Argitarazleak: Lázaro Echegaray eta Koldo Somokueto. Euskaltzainak bilduma, 43.

- *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoen artean: egoera eta aukera berriak*. Askoren artean. Jagon 24.
- Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811. Edizioa eta hizkuntza azterketa. Paratzaileak: Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri Izko. Iker 48.
- *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 2023, 2.

8.2 Hurrengo bilkura. 2024ko martxoaren 22an, ostiralean, Gasteizen, udaletxean, 10:00etan, osoko bilkura egingo da. Egun horretan, Gasteizko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko urteko hitzarmena izenpetzea begiz jota dago.

9. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria